



Mikel eta beste preso gaixoak gogoan

Elkarrizketa: Ana Etxaniz
Eskola kirola martxan
Larrialdi klimatikoa

Zenbaki hau zuen etxeetan jasotzen duzuenen-
rako, Gabonetako ajeak pasatuta eta egunerokotasunean murgilduta izango zarete. Zenbatetan entzun ote dugun hobereana normaltasunean ibiltzea dela. Ez dugu ukatuko egia izan daitekeenik, baina egunerokotasunean ere une edo momentu bereziak aurkitzea ezinbestekoa dugu, bizitzari zuku pixka bat ateratzeko. Norbaitek bien arteko formula magiko hori topatzen badu, hurrengo zenbakirako abisa gaitzala.

Udalean ere, eguneroko lanek eta jarduerak jaten dute denbora gehiena, baina horrek ez du saihesten aurrera begirako proiektu garrantzitsu eta luzeak gogoan izatea. Aurtengo agendan leku berezia izango dute Itsasondoko Eskola berriaren proiektuak, Beko kaleko urbanizazioak eta tren geltokirako igarobideak. Horiez gain, ziu aski aurreikusitako gabeko gairen batek uste baino buru-hauste gehiago sortuko dizkigu, baina ezin da dena kontrolpean izan.

Itsasondo 2.0. aleari dagokionez, ohiko edukiak aurkituko dituzue bertan. Opor garaian testuak idatzi eta bildu beharrak ez du gehiegi laguntzen, baina eskerrak eman nahi genizkizueke, txintxo-txintxo aldizkaria kalean izan dadin zuen aletxo jarri duzuen guztioi.

Elkarrizketaren atalean Ana Etxanizek kontatutakoak bildu ditugu, kontu interesgarri ugari azaldu dizkigu. Zenbaki honetan, hemerrotekak hartzen du zati handiena, herrian izan diren ekintza andanaren ispilu. Aurten ere ez da ekintza eta ekimenik faltako, ea denon artean antolatuta eta haietaz gozatzeko gai garen.

Hauk dira aurtengo asmoak eta nahiak. Urtean zehar kaleratzeaz ditugun aletan berrietasunen bat aurkezten saiatuko gara. Beraz, zuetakoren batek ideiarene bat badu edo artikuluren bat idazteko prest badago, eskuzabalik egingo diogu ongietorria. ■



Agurra



Aurkibidea

- 03 **Udaleko berriak**
- 04 **Haurreskola**
- 05 **Guraso elkarteak**
- 06 **Eskola kirola**
- 07 **Natura**
- 08-11 **Elkarrizketa: Ana Etxaniz**
- 12 **Informatika**
- 13 **Elkarrizketa: Ibou Ngom**
- 14 **Gazteria**
- 15 **Presoak**
- 16-18 **Hemeroteka**
- 19 **Errezeta / Euskararen atala**
- 20 **Oharra / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Markesaren alaba*

Negua amaitzeaz,
gertu edonola
txikiaren kontuak
datoz hola-hola,
higienea eta
eskola kirola
bideratu nahiean
ari da eskola.

Elkarrizketarako
gogo ta gutuzi
somatu diogunez
Ana Etxanizi,
kontu garrantzitsuak
berak adierazi
ahots garbi-garbian
dator bizi-bizi.

Ordenagailuak noiz
digu egiten huts
entxufatzen baitugu
hogeitalau orduz?
Baina gizagorputza
noizean behin kamuts
osatuak baikaude
gorputz eta buruz.

Kilmaren aldaketa
guztion arazo,
presoen urruntzeak
dakar hainbat gaixo,
euskararen txokoan
liburueri so
errezeta on batez
animoa jaso!

Udaleko berriak

2019. urteko azken hiruhilekoak honako gai hauek eman ditu.

UDAL BATZARRAK

Urritik azarora bitartean udalean jorratu diren gai garrantzitsuenak hauek izan dira:

Irailak 30ean honako erabaki hauek izan ziren:

- Nagore Etxeberria udal zinegotziari egun erdiko dedikazioa onartu zaio udal zereginetan aritzeko.
- Nafarroako herriek uholdeengatik izan zituzten kalteak berreraikitzen laguntzeko, EH Bilduren mozioa onartu zen, eta 2.000 €ko dirulaguntza bideratu zen.
- Klima aldaketaren aurkako mozioa onartu zen.
- Frontoietakoa komunetan irisgarritasuna bermatzeko obren proiektua onartu zen.
- Kale Nagusiko Gure Ametsa eta Bidearte etxebizitzaren aurrekaldeko espaloia erreforma proiektua onartu zen.

Urriak 14ean honako erabaki hauek izan ziren:

- 2020ko ordenantza fiskalen aldaketa onartzea izan zuen puntu garrantzitsua. Zerga eta tasa guztiak (ibilgailuen zirkulazioa, zaborrak, estolderia, ibiak...) %0,6 gogotzea erabaki zen. Aldiz, uraren tasak igoera handiagoa izango du, %5. Aldaketa horiek egiterakoan, udalak zerbitzu horiek ematerakoan jasaten dituen gastuak kontutan izan dira.

Abenduak 9an honako erabaki hauek izan ziren:

- 2020ko udal aurrekontuaren onarpena. Gastu eta sarreretan berdinduta, 988.600 €ko zenbatekoa izango du.
- Sarreretan jasotzen dugun zenbateko handiena Foru Aldundiak udalei biztanle kopuruaren arabera banatzen dien Foru Fondoa da. Gure kasuan 498.798,00 €.
- Gastuetan, berriz, langileen ordainsariak eta udal zerbitzuen mantenu gastuak aparte, honako inbertsioak gauzatzeko da 2020ko egitasmoa:

– Herri bideetan berrikuntzak	60.000 €
– Basogintza berria	30.000 €
– Ingurune naturala terreno erosketara	30.000 €
– Gure Ametsa eta Bidearteko espaloia berria	48.200 €
– Frontoiko komun berriak	60.000 €



2020RAKO AURREKONTUAK

SARREREN AURREKONTUA

Zergak, ibilgailuak, hirilur zerga, IAE	135.210 €
Obra zergak	1.200 €
Tasa eta bestelako sarrerak	32.018 €
Aldundiko ekarpena eta dirulaguntzak	543.902 €
Ondare sarrerak	13.600 €
Dirulaguntzak	162.670 €
988.600 €	

GASTUEN AURREKONTUA

Pertsonal gastuak	335.239,25 €
Udal zerbitzuen mantenua	254.947 €
Finantza gastuak	150 €
Erakundeetako udal transferentziak	124.554 €
Inbertsioak obrak	273.709,75 €
988.600 €	

DIRULAGUNTZAK

Lortutakoak

- Liburutegian Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak egingarriak. 750 €.
- Liburu funtsak erosteko dirulaguntza. 410 €.
- Teknologia berriak; liburutegian informazio pantaila jartzeko. 598 €.
- PIMA hondakinak. 2683,30 €, Itsasondoko auzokoposta proiektuarekin jarraitzeko.
- Langabezian dauden pertsonen kontratatazioa bultzatzeko laguntzak. 12.500 € peoi bat 6 hilabetez kontratatatzeko.

Alkate dekretu bidezko zenbait erabaki ere izan dira, guztira 60 erabaki. ■


Haurraren fardela aldaketa haureskolan

Haureskolan higiena ezinbestekoa da haurraren ongizate fisikorako, bere NI-aren garpenerako, irudi pertsonal baikorra barneratzeko, gorpuzta bere osotasunean ezagutzeko, (segurtasun eta independentzia sentimendua bereganatzeko) eta heldua eta haurraren arteko erlazio intimo eta pribilegiatu bat eraikitzeko. Hori gauzatzeko helburu hauekin lana egiten dugu:

- Haurraren ongizate fisikoa bermatzea.
- Fardel aldaketan haurrak autonomia izatea, haurra protagonista izatea eta haurraren gorpuzta errespetatzea.
- Ekintza hori mekanizatua ez izatea, eta haurra ez ikustea objektu bat bezala; baizik eta sentimenduak eta bizitza dituen eta gauzak ulertzen dituen gizaki bat bezala. Hezitzailearen eta haurraren arteko elkarlana izateko aukera lantzea.
- Hezitzailea eta haurraren arteko erlazio pribilegiatu, lasai, goxo eta aurrez aurrekoa sortzea.
- Hezitzaile eta haurraren arteko hartu-eman emozional seguru eta konfiantzazkoa lortzea.
- Haurra beti errespetatzea.

Guzti hori kontuan izanda, fardel aldaketarako, guk erabiltzen dugun espazioa aldagela da. Aldagela gune lasaia eta segurua da. Aldagelan, koltxoi egokiak daude, eta azpian oihalak jartzen ditugu. Bide batez, beste haurrei ere bertan izateko aukera ematen diegu, espazioa egokituta dagoelako.

Eskailerak erabiltzen ditugu bertara igotzeko oinez dakitenentzat, eta oinez ez dakitenak geuk hurbiltzen ditugu. Beti ere, gure helburu nagusia betetzen saiatzen gara: haurraren autonomia, gaitasunak eta interesak lantzea.



Fardela aldatzerakoan, haurraren gaitasuna hurbildu eta aurpegira begiratuz esaten diegu aldatu egin behar dugula. Haurra buruz gora jarriko dugu, bere mugimenduak errespetatuz. Ezinezkoa egiten bazaigu, esango diegu momentu batean geldirik egoteko. Fardela aldatzen ari garen heinean, egoera deskribatuko dugu (galtzak eta fardela kentzen goazela), eta haurrak esaten diguna ere kontutan hartuko dugu. Fardela kentzerakoan, haur guztiei erakutsiko diegu beti zer egin duen, hau da, kaka edo pixa. Bukaeran fardelak zakarrontzira botako ditugu, "agur" esanez. Denborarekin berari aukera eskainiko zaio, ekintza hori egin nahi duen jakiteko, eta eskertu egingo zaio laguntza ematea. Bukatzean, lehen zegoen lekuan utziko dugu.

Egoera horretan, hezitzailearen rola garrantzitsua izango da. Adi egongo gara, behaketaren bidez, betiko errutinatik aparte fardel aldaketan. Haurraren, hitzaren, keinuren eta begiradaren bitartez komunikatuko gara. Haurrari esan behar zaiona esan baino lehen, hitza emango zaio, eta denbora bat emango zaio pentsatzeko edo erantzuteko. Haurraren errespetua garrantzitsua da. Momentu horretan, hezitzaile eta haurraren arteko giroa lasaia, goxoa eta banakakoa izango da.

Guzti hau interesgarri izango zaizuen esperoan agurtzen gara haureskolatik. ■

Guraso elkartea

Iturritxiki Guraso Elkarteak ikasturtea eraberriturik hasi du, batzordekide berriak ditugu, baina horrez gain begirada berri batekin gatoz. Gazteria sailetik abiatutako hausnarketa prozesu baten ondorioz gureak egin ditugu printzipio garrantzitsu batzuk:

1. Herri txikia eta euskalduna da gurea.
2. Guztion herria: herritar bakoitzarena eta guztiona da Itsasondo, guztiak kontuan hartzen gaituena eta denentzat irekia. Adin, kultur eta jatorri aniztasunak aberasten gaituena.
3. Herritik eta herriarentzat. Gure txikitasunetik, gure baliabideak modu egokian bideratu behar ditugu, berriz herrira itzul daitezzen.

Printzipio horiek kontuan hartuta lan egiteko saiakera egingo dugu, jakin badakigun arren, akatsak egingo ditugula. Baina eroriz ikasten da oinez.

Horrela, ikasturte honetako ekintzak berritzen joango gara, gure seme-alaben parte hartzea bultzatuz eta herritar autonomo zein ekintzaileak izateko bidea irekiz.

Ikasturtea lanpeturik hasi dugu. Herrian lehenengoz Gau beltza ospatu dugu. Garai bateko ohitura zaharrak berriro ditugu, eta gure egiteko ekimen bat izan da. Herritar askok parte hartu du eta eskerrak eman nahiko genizkieke; izan ere, beraien parte-hartzerik gabe, ezin izango genuke festa zirraragarri hura antolatu eta egin.

Mozorroz eta sustoz betetako gaua izan genuen urriaren 31koa! Bestelako lurraldetara eramaten gintuzten ipuin kontaketen ondoren, eta gau ibilaldian gozatzeko edo izutzeko aukera izan zuten ausartene! Gauari amaiera emateko Bizi Nahi elkartea txiki utzi zuen afari-merienda dastatzeko parada egon zen.



Gau beltzeko beldurrak uxatzeko denborarik gabe, gaztaina jana gainean genuen! Gaztainak gatz-uretan eduki eta labean goxo-goxo erre ziren. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende andana bildu zen Errota pilotalekuan.

Azkeneko aste hauetan Gabonetako magian murgilduta ditugu ikasle eta gurasoak. Haur txokoa apaindua dago dagoeneko, eta 24rako azkeneko ukituak besterik ez zaizkigu falta! Ikasleen ilusioz kutsaturik abesti berri bat ikasten dihardugu azken egunotan; barkatuko diguzue behar bezala ateratzen ez bazaigu aurtengoan, datorren urterako hobetuko dugu!

Gure berri izateko gure bloga bisita dezakezue: <http://iturritxikige.blogspot.com>

Eskola kirola Itsasondon

Ikasturte honetarako erronketako bat Itsasondon eskola kiroleko taldeak sortzea izan da guraso elkartearentzat eta eskolarentzat.

Orain arte eskola kirolean parte hartu zuten hurrek Legorretako eskolako hurrekin batera egiten zuten, Legorretako taldean. Aurreko ikasturtean, parte hartu zuten hauren kopuruak gora egin zuela ikusita, herrian bertan taldeak sortzeko nahia piztu zen. Eta nahi hori egia bihurtu da. Bi talde sortu dira, lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako neska-mutilekin bat, eta 5. eta 6. mailakoekin, bestea.

Udalak ere erronka honekiko babesa azaldu du, eta Errota pilotalekua kirol anitzetarako gune bezala egoitu du.

Jaso enpresari ere laguntza eskatu zaio proiektu hau egiteko, eta haurren ekipazioaren kostua bere gain hartu du.

Herriko gazteak, berriz, entrenatzaile lanetan jarri ditugu, Julen eta Mattin primeran ari dira, hurrekin batera gozatuz.

Urkipe herri eskolaren laguntza ere ezinbestekoa izan da, haur guztien integrazio eta parte-hartzearen alde eginikoa. Eta gurasoak ere aipatu behar dira, nola ez, larunbatero herriz herri dabiltzalako, hurrekin gozatuz.

Lerro hauen bidez, proiektu honetan lagundu gaituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiogu, eta haur guztiak animatzen ditugu gurekin batera eskola kirolean parte hartzera! ■



Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldea (IPCC: Intergovernmental Panel on Climate Change) Nazio Batuen mendeko erakunde bat da, gizakiak eta haren jarduerak eragindako klima aldaketaren arriskua aztertzea eta hari aurre egiteko neurriak hartzea helburu duena. Munduko Meteorologia Erakundeak eta Nazio Batuen Ingurumen Programak 1988an sortu zuten.



Larrialdi klimatikoa

Klima aldaketari buruz Parisen 2015ean lortutako akordioan, munduaren berotzea 1,5º-ra mugatzea adostu zen, eta gobernuek IPCC-ri txosten bat prestatzeko eskatu zien, tenperatura igoeraren ondorioak ezagutu eta nola jokatu behar zuten erabaki ahal izateko.

IPCCko 721 zientzilarik 2018 bukaeran argitaratu zuten txostena eta, ondorio nagusien artean hauek daude:

- Parisko Akordioa sinatutakoan uste zena baino askoz arriskutsuagoa da 2ºC-ko igoera. Inflexio puntu kritikoetatik eta funtsezko beste arrisku batzuetatik gertuegi dago.
- Berotzea 1,5ºC-ra mugatzea, 2ºC-ra mugatu beharrean, diferentzia handia izango litzateke; bai ozeanoetako, bai lurreko bizitzarako. Ehunka milioi pertsonak muturreko bero-boladak maiz izatea saihestuko luke, ur-eskasiari aurre egin beharko liokeen biztanleria erdira murriztuko litzateke eta pobrezia desagerraraztea lortzen lagunduko luke.
- Berotzea 1,5ºC-ra mugatzea zaila da, baina oraindik garaiz gaude. Datozen urteak kritikoak dira, basoak handitu eta CO2 isurketa globalak erdira murriztu behar dira 2030erako; gainera, berandu bezala, zero isuri izatea lortu behar da mendearen erdialderako.

Horri lotuta, Madrilen egin berri da klimari buruzko Konferentzia, COP25 izenekoa. Jardunaldia akordio bat lortzeko antolatuta zen: 2050erako berotegi efektuko gasen isurketen murrizketari buruzko akordioa, hain zuzen. Dena den, ezer zehatzik adostu gabe amaitu da. Parte hartu duten 200 herrialde inguruk berotze globalaren aurka jarduteko "premiatzko beharra" adierazi bai, baina funtsezko akordioarik ez dute lortu.

Eragile sozialek adierazi duten bezala "Politikariek ez dute krisi klimatikoa serio hartzeko zantzurik erakusten". Nazio Batuen Idazkari nagusia ere ez da atzera geratu: "Hurrengo hamarkadaren amaieran bi ibilbideetako batean egongo gara: bat, amore ematearen bidea, non itzulerarik gabeko puntutik harago, planeta honetako biztanle guztien osasuna eta segurtasuna arriskuan jarriko diren. Bestea itxaropenaren bidea da, konponbide iraunkorrarena. Bide horretan, erregai fosil guztiak lurpean utzi beharko dira, egon beharko luketen lekuan; eta, horrela, 2050ean karbono-neutraltasuna lortzeko modua egingo da.■

Ana Etxaniz

Estetizista

Bergarako Itsasondoarra. Estetizista lana du pasioa eta koruan abestea denbora pasa. Familiko negozioan lanean gustura dago.

Bergara duzu jaioterria?

Bai, Bergarakua naiz. 1964an jaio nintzen.

Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa eta gaztaroa?

Egia esan, nahiko lasaia izan zen. Nahiko formala nintzen neu ere, eta oroitzapen ona dut. Orduan gauzak ez ziren orain bezala; trafiko gutxiago zegoen, umeak lasaiago ibiltzen ziren kalean... nire auzoan, gainera, haur asko zeuden, eta kalean ibiltzen ginen jolasean egun guztian. Oso oroitzapen politak ditut, egia esan.

Anai arreba asko zarete?

Bost gara, eta neu naiz zaharrena.

Zaintza lana ere egin zenuen orduan?

Bai, bi txikienekin bai, amari laguntzen nion. Oraindik batzuetan "amatxo" naiz.

Noiz etorri zinen Itsasondora?

Ezkundu nintzenean etorri nintzen, aurten egin ditut 22 urte ezkondua.

Ongi egokitu zara herrira? Ohitu zara?

Bai, hasieratik ondo egokitu naiz, oso ezberdinak dira herri txiki-txiki bat edo Bergara, Beasain edo Tolosa bezalakoak. Egia esan oso moldagarria naiz, eta ondo moldatu naiz hasieratik... jendeak harrera ona egin zidan.

Talde batekin ibiltzen hasi nintzen. Ia urtebetera haurra izan nuen, Maider jaio zen, eta orduan umeak zituzten beste emakume batzuekin ibiltzen hasi nintzen. Senarraren kuadrillako ia guztiak kanpoan zeuden, eta orduan taldetxo honekin hasi nintzen. Astebururako planak egiten ere hasi ginen, eta oso ondo. Izan ere, hasieran ez da izaten erraza; nahiz eta senarra hemengo izan, nire lekua egin behar nuen.

Mantentzen duzu harremana lagun talde honekin?

Bai, mantentzen dut. Batzuetan gutxiago egoten gara, beste gauza

batzuk ere baditugulako. Baina bai, jarraitzen dugu harremana.

Zer sumatzen duzu faltan jaioteritik?

Giroa, ambientea. Ulertzen dut Itsasondo txikiagoa dela, baina batzuetan lasaiegia iruditzen zait. Ez dago giro asko dagoen lekurik, tabernak aparte daude. Esaterako, Legorretako plazan giro asko sortzen da, beti dago jende gehiago, asteburuetan, adibidez.

Maiz joaten al zara Bergarara?

Bai, askotan. Familia ere faltan botatzen duzu, eta nola ez gauden urruti, badut joateko ohitura. Lanera ere hara joaten naiz.

Herri handia edo txikia, zer duzu nahiago?

Ertaina esango nuke: tartekoa. Bergara, Beasain edo Tolosa bezalakoak ditut gustuko. Tolosa asko gustatzen zait, esaterako. Ordizia ere bai, baina Tolosan lagunak ditut, eta gustatzen zait joatea. Gauza batzuetan Bergararen antza hartzen diot, eta hori gustatzen zait.

Zein ezberdintasun ikusi zenituen garai horretan Bergara jaioteritik Itsasondora?

Orduan, ezberdintasun asko ikusi nituen, oso desberdinak baitira. Zerbitzuen arloan, batez ere. Hemendik mugitu egin behar zara edozertarako, egia esan, kotxea beti izan dut aldamenean. Orain, gero eta gehiago saiatzen naiz garraio publikoan ibiltzen, trenean, adibidez. Hori du ona Itsasondok, trena daukala. Bergaran, adibidez, horren falta sumatzen dut. Garai batean garraio aldetik oso gaizki zegoen Bergara, nahiz eta orain hobetu egin den autobus aldetik. Lehen bi tren geltoki zeuden Bergaran, eta gero kendu egin zituzten. Hori bai sumatzen dugula faltan. Beraz, uste dut Itsasondo aldameneko herri handi batzuk baino hobeto dagoela zentzu horretan, trena duelako. Horrek asko lagun-

Itsasondon oso gustura nago, lasai bizi naiz.

Herri ertainak ditut gustuko, giroa eta zerbitzuak dituztenak.

Nire lanean pertsona ondo sentitzea da helburua.

tzten du, kotxerik ez baduzu, mugitzeko aukera ematen dizu. Bolada batean esaten zen leku batzuetan geltokiak kenduko zirela, eta hemen mantentzea lortu zen. Hori oso garrantzitsua da. Autobusa ere badago. Kontua da zerbitzuak mantentzeko jendeak erabili egin behar duela.

Familia Itsasondon osatu duzu. Seme-alabak itsasondoar peto-petoak dituzu, hortaz?

Bai horrela sentitzen dira, dudarik gabe, itsasondoarrak.

Herriko ekimenetan parte hartzen duzu? (Antolatzaile edo partaide modura)

Egia esan, lehen gehiago. Umeak txikiak zirenean gehiago ibiltzen nintzen laguntzen-eta. Orain fronte asko ditut irekita, eta zailagoa egiten zait parte hartzea. Denbora gutxiago daukat, eta beste ardura batzuk ere bai, baina ahalegintzen naiz laguntzen eta parte hartzen. Hemen nagoenean behintzat saiatzen naiz. Dena den, esan bezala orain umeak txikiak zirenean baino gutxiago parte hartzen dut.

Zure ibilbide profesionala, estetiziena izan da? Zer lan mota egiten dituzu?

Bai, horrela da bai, estetizista naiz. Orain lan gutxi egiten dut horretan, nire lanbidea tailerlean baitago senarrarekin, baino estetizista lana ere ez dut guztiz utzi. Batzuetan oraindik joaten naiz Bergararako lanak egitera, eta orokorrean estetika lan guztiak egiten ditut: aur-

pegi tratamenduak, gorputzekoak eta orain kinesologian ere banabil. Ez nuen pentsatzen, baina hor nabil, eta oso gustuko dut. 19 urterekin ikasi nuen estetizista lana, eta inoiz ez dut guztiz utzi. Haurrak txikiak zirenean ere jarraitu nuen, lanaldi erdiak bilatzen egoten nintzen, eta beti ibili naiz lan honetan. Nire pasioa da.

Kinesologia zertan datza?

Helburu bat jartzen duzu, eta gorputzari galdera batzuk egiten zaizkio. Nire jakintzarekin eta gorputzak adierazten duenarekin lotura bat egiten da. Modu ezberdinak daude kinesologia egiteko, penduluarekin esate baterako. Kinesologiarekin emozionalki lagundu dezakezu bach loreak testatzen, adibidez. Hori da helburua, pertsona ondo sentitzea.

Zer alde on eta txar ditu lanbide gisa?

Beste pertsona batentzat lan egiten denean gertatu ohi den bezala, soldatak baxuak dira. Oinarrizko ikasketekin egin dezakezu lan hori, eta orduan soldatak ez dira oso onak, ileapaintzaileen modura. Ordu asko eta soldata baxua. Estetizista ona izateko asko ikasi behar da, beti egon behar zara hor, nik ere badut oraindik zer ikasia... beti zaude ikastaroak egiten; eta, gainera, dirutza bat balio dute. Negozioa zure kabuz jartzea ere oso zaila da. Horretatik bizitzea oso zaila da, ni ez naiz ahalegindu horretatik bakarrik bizitzen, senarrak badu bere lana eta soldata, eta nirea laguntza bat izan da. Bakarrik egongo banintzateke, gaizki ibiliko nintzateke estetizista lana eginda bakarrik bizitzeko... ez dago ondo baloratua. Bestela, lan bezala oso polita da, jendeari ondo sentitzen laguntzen diozu, bai depilazio batekin, baita azaleko tratamendu batekin ere. Jendeari harremana duzu, lagundu egiten diozu, eta hori polita da.

Aldaketarik sumatu duzu lanbide hasieratik ona? Jendeak egiten dituen lan motetan?

Pasada bat da aparatologian egin den aurrerapena. Niri eskuakin lan egitea gustatzen zait, badaude oso onak diren aparatu batzuk, eskuak egin ezin dituzten zenbait lan egin ditzaketeenak. Horiek, ordea, laguntza osagarri modura erabili behar dira. Leku batzuetan dena aparatuekin egiten dute, eta estetika kongresu batera joaten bazara, laster nabaritzen duzu hori. Nik uste dut bi adar daudela, bat eskuakin lana lehenesten duena; eta, bestea, aparatologiarena. Laguntza modura onak izan daitezke aparatua, baina eskuak hobeak dira.

Estetizien munduan ere aurrerapen asko eman dira, lan motetan, tresnerian, zaintzan... formazio asko jaso behar izan duzu? Egokitu zara berrikuntza hauetara?

Estetika oso zabala da, eta denborarekin joaten zara zure gustuko gauzak ikasten. Niri, adibidez, asko gustatzen zait pertsona bat arazo batekin datorrenean, nire ezagutzak erabili eta berari laguntzea. Denentzako ez du gauza berak balio, eta beharrei erreparatuta, masaje normal bat, terapeutikoa edo drenaje linfatiko bat eskain dezaket, besteak beste. Pertsona bati, agian, metodo batek asko laguntzen dio, baina beste bati ez dio balio. Badaude gauza batzuk nik egingo ez nituzkeenak: mikropigmentazioa, laserra edo depilazio elektrikoa, adibidez. Nik masajeekin, tratamendu pertsonalizatuekin eta kinesologiarekin lan egiten dut. Horiez gain, gustuko ditut txinatar filosofia oinarri duten etxe batzuk ere. Azken finean ez diogu arreta jartzen estetikari bakarrik: estetika eta emozioa uztartu behar dira, helburua pertsona bera ondo sentitzea delako.

Senarrak tailerra ere badu Le gorretan, bertan laguntzen ere ibiltzen zara?

Kaldereria dugu, bai. Denetik egiten dut bertan, bulegoan lan administratiboak egiten ditut, eta behar den guztian eskaintzen dut laguntza. Gero hor ibiltzen naiz dena ezin iritsita. Poliki-poliki hasi nintzen laguntzen, eta duela bostsei urte, gehiago joaten hasi nintzen. Ondo dago etxeko negozioan laguntzeko aukera izatea; bestela, beste pertsona bat hartu behar duzu lan horiek egiteko.

Afizio bat ere baduzu, abestea. Koroko kidea zara oraindik ere ez?

Bai, uste dut jaio nintzenetik nabilela kantuan. Hasieran mojetan bertan ikasi nuelako hasi nintzen abesbatzan; gero, 15 urte nitueanean, Aritzeta korua sortu zen Bergaran; eta, gero, Bergarako orfeoian ere ibili nintzen. Maider, alaba, jaio baino lehen kantatu nuen azken kontzertua Bergaran. Gero, bertan lanean jarraitzen banuen ere, korua utzi egin nuen, egunen batean berriro hastekotan. Umeak handitzean, pixka bat hasi nintzen berriro.

Zer eman dizu koroetako esperientziak?

Oso esperientzia polita da, poza ematen dit, jendea ezagutzen duzu, harreman berriak egiten dituzu eta oso polita da.

Zenbat denbora eskaintzen diozu koroari?

Beti pentsatu izan nuen Ordiziara joango nintzela korura, umeak handitzean. Baina Lazkaoko zuzendariarekin kointziditu nuen, Viñaspren lanean egon nintzen bolada batean, eta esan zidan kontraltoa behar zutela. Horrela animatu nintzen bertara, eta han hasi nintzen. Orain bertan nabil, Kantaka koruan. Astean behin, bi orduz entseatzen dugu, eta ondo moldatzen naiz;

kontzerturen bat gehiago-edo izaten dugu, baina orokorrean entsegu hori da egiten duguna. Ez da oso nekeza, ondo moldatzen naiz. Niretzat hartzen dudana denbora da.

Leku esanguratsuren batean abestu duzue?

Urte asko pasatu dira, baina Erromako koliseoan kantatu genuen. Ez zen kontzertu bat izan bere horretan, Italiara joan ginen abesbatza bezala kontzertu batzuk ematera, eta Koliseora iritsi ginenean esan genuen: "Hemen abestu beharra dago". Oso ondo entzuten zen, eta polita izan zen oso.

Non abestea gustatuko litzazuke?

Ez dut leku zehatzik. Edozein plaza izan daiteke; zuk disfrutatu eta jendea disfrutatzen ikusten duzun edozein leku da ona. Gozatu eta gozarazteko da abesbatza.

Lagun asko egin dituzu koroan?

Bai, adibidez, Lazkaon denak berriak ziren, eta lagunak egin nituen bertan.

Nola ikusten duzu abesbatzen etorkizuna?

Uste dut hemen, Euskal Herrian, ez dela galduko, oso kantuzaleak garelako. Herri gehienetan daude abesbatzak, eta jada denak ez dira Elizakoak, garai batean bezala. Hemen, adibidez, abenduaren 24an ateratzen da abesbatza, eta hor egoten ere beti saiatzen naiz.

Non sentitzen zara ondoen, tailerrean, estetizista lanbidean edo abesbatzako kide modura?

Korokoa zaletasuna da, eta hor jarraituko dut. Ahotsa gaizki jartzen bazait, utzi egin beharko dut, baina jubilatuen kororen bat bada, nik han jarraituko dut.

Lanbide modura estetizista gustatzen zait gehiena, noski; baina tailerrera ere gustura joaten naiz. Administrazioa ikasi nuen estetizista ikasketak egin ondoren, lan



Octoberfest



Itsasondoko jaizak



Kantaka Gabonak 2018



Txikitako argazkia

handiegirik ez zegoelako. Ondoren, urteak egon naiz ikasketa horietan ikasitakoa erabili gabe, baina gero tailerrean lan horixe egiten egon naiz. Tailerrera gustura joaten naiz, baina estetizistarenak asko betetzen nau baina, Itsasondok, herri txikia da, eta ez dut uste lana egun osoz egiteko aukera emango zuenik.

Beste lanbiderik probatuko zenuke?

Ez dakit, baina ez dut uste. Eztetizista labidea kasualitatez ikasi nuen. Izeba batek denda zuen, eta berak proposatu zidan ikasteko, gero berarekin denda lana egiteko. Hori egin nuen, eta hasieratik ikusi nuen gustuko nuela.

Beste afiziorik baduzu?

Askok gustatzen zait bidaiatzea. Bikotekiderik ez nuenean, gehiago bidaiatzen nuen. Orain, halere, lagun talde batekin urtean behin-edo egiten dut bidaiatxo bat. Lekuak ezaizteza asko gustatzen zait. Eztei

bidaietan Argentinan egon nintzen, eta Istanbuleren ere egon naiz, errepikatuko nitzuke biak.

Horrez gain, ingelesa daukat buuruan. Egin dut zerbait, baina uste dut oso garrantzitsua dela hizkuntza hau jakitea, asko laguntzen duelako munduan ibiltzeko.

Zer eman dizu Itsasondok?

Lagun on berriak.

Zer duzu gustuko Itsasondotik?

Lasai bizi naitekeela bertan.

Eta zer aldatuko zenuke herri-tik?

Anbiente pixka bat gehiago, lehen esan dudana bezala. Ekintzak egiten dira, baina, agian, adin ezberdinetarako gehiago eginda, jendea herri-argituko litzateke, herri-giroa sortuz, baina badakit zaila dela. Izan ere, gauzak antolatzen saiatzen egiten da, eta gero, askotan, ez dugu parte hartzen. Ahaleginu beharko ginatke herri-argituko betan gelditu, eta adin ezberdinetarako ekintzak antolatu eta parte hartzen.

Horrez gain, gimnasio bat izatea ere ondo legoke. Badaude ekintza ezberdinak: pilates, yoga eta abar, baina oinarrizko gimnasio bat egotea ere ondo legoke, erdutegi horietan ezin duenak ere aukera izan dezaten zerbait egiteko. Hori, gainera, adin tarte ezberdinetarako da, eta ona izango litzateke herri-argituzat. Osasuna zaintzeko da, gainera, eta jendea oso gustura egongo litzateke.

Gogoan dut txikitik Bergaran bazudela igerileku bat eta sala bat, eta bertara joaten nintzela. Nire ama ere joaten zen, eta adin ezberdinetako jende asko egoten ginen bertan.

Zer geratzen zaizu egiteko?

Pozik nago egiten dudanarekin: nire bidaiak, koroa, lana... gustura nago. Agian, lasaiago bizitzea nahiko nuke, baino gustura nago orokorrean. ■

Kz guneak

Kz guneak formazio ezberdinak jarri ditu, Itsasondoarrak ere jaso ditzakegunak. Aukera ezberdin ugari dago.

KZ Guneak eskaintza zabala du, eta horren berri eman nahi dizuegu, Itsasondon ere probetxua atera diezaiogun formazio aukera honi.

Bi hilean behin etortzen da dinamizatzailea. Liburutegiko oharretan eta pantailetan jarriko da zita honen berri. Bertaratzten den egunetan, tutoretzak, hitzaldiak eta formazioak jasotzeko aukera dago. Dena den, eskaintza ez dago egun horietan soilik; interesa izanez gero, beste egunen batean ere eska dezakegu formazio zehatzen bat.

Jarraian laburbiltzen dira KZ Guneak dituen formazioaren hainbat eskaintza.

Interes zehatzik izanez gero, idatzi gazteria-kultura@itsasondo.eus helbidera, eta bi-hiru lagun elkartuz gero, intereseko formazioa bertan jasotzeko ikastaroa antolatuko dugu.

Aukera paregabea dugu, eta pena litzateke zerbitzu horiek ez erabiltzea. Hori dela-eta, irakurri lasai eskaintza, eta animatu, saio praktikoak eta ulerterrazak dira-eta.

Dinamizatzailea etortzen den egunetan tutoretzak egiteko aukera dago. Esan bezala, bertan aholkularitza ere jaso daiteke KZ Gune zerbitzuaren inguruan, baita ofimatikaren inguruan izan ditzakezuen beste zalantza batzuen inguruan ere. ■

Bideratuta	Modalitatea	
		Aisia eta entretenimendua
	Aurrez aurrekoa	Zure bidaiari planifikatu (6h)
	Aurrez aurrekoa	Musika aplikazioak zure Smartphonean (2h)
	Aurrez aurrekoa	Egon zaitze aktibo Google Fit eta Wikibocekin (2h)
	Aurrez aurrekoa	Google Maps. Zure ibilbidetik onena arakatu eta aukeratu (4h)
	Aurrez aurrekoa	Pocket. Interneten dagoen onematekin gero zaitze (2h)
	Aurrez aurrekoa	Google Traductor. Testuak eta web orriak itzuli (2h)
	Aurrez aurrekoa	YouTube. Bideoak ikustea baino askoz gehiago (4h)
	Aurrez aurrekoa	Zure egunerokotasuna erraztuko duten aplikazioak (2h)
	Urunekoak	Wikiloc. Sortu eta partekatu zure kanpoko ekintzen ibilbideak (20h)
	Hitzaldia	Azken gau teknologikoak ezagutu (2h)
	Hitzaldia	Ezagutu 3D inprimatzeko dituen aukerak (2h)
	Hitzaldia	Gauezin Interneti (2h)
	Hitzaldia	Murgildu errealitate birtual eta areagoetan (2h)
		e-Administrazioa
	Aurrez aurrekoa	Online izapideak Osakidetzarekin (4h)
	Aurrez aurrekoa	Eusko Jaurlaritza zure Smartphonean (4h)
	Aurrez aurrekoa	Irudi Txartela (2h)
	Aurrez aurrekoa	Tramiteak online Errenteriako Udalarekin (2h)

Bideratuta	Modalitatea	
		Oinarrizko formakuntza
	Aurrez aurrekoa	PCa, teklatura eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu (6h)
	Aurrez aurrekoa	Oinarrizko interneta. Nabigatzen eta e-mailak bidaltzen ikasi (20h)
	Aurrez aurrekoa	Mekanografia. Ikasi hutsetik (10h)
	Aurrez aurrekoa	Smartphoneak eta Tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi (14h)
	Urunekoak	Android Sistema Eragilea (40h)
	Hitzaldia	Android sekreturik gabe (2h)
		Sare sozialak
	Aurrez aurrekoa	Facebook. Konektatu lagun eta senideekin (8h)
	Aurrez aurrekoa	Facebook zure Smartphonean (6h)
	Aurrez aurrekoa	Twitter zure Smartphonean (4h)
	Aurrez aurrekoa	Instagram. Partekatu zure argazki eta bideo onenak (4h)
	Urunekoak	Sare sozialak, Facebook, Twitter eta YouTube (40h)
	Urunekoak	Maria personala eta LinkedIn (20h)
	Urunekoak	Facebook. Egunerokotasuna partekatu (4h)
	Urunekoak	Instagram. Argazkiak atera eta partekatu zure unerik onenak (4h)
	Urunekoak	Twitter. Momentuan momentuko informazioa (4h)
	Urunekoak	Pinterest. Zure inspirazio-iturria (4h)
		Ofimatika
	Aurrez aurrekoa	Ofimatika tresnak. LibreOffice (20h)
	Aurrez aurrekoa	LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu (8h)
	Aurrez aurrekoa	LibreOffice Calc. Zure kalkulatu orriak sortu (6h)
	Aurrez aurrekoa	LibreOffice Impress. Zure aurkezpenak sortu (4h)
	Urunekoak	Ofimatika orokorra. LibreOffice (40h)
	Urunekoak	Ofimatika aurreratua. LibreOffice (40h)
		Enplegu-bilaketa
	Aurrez aurrekoa	Enplegua bilatzeko aplikazioak (4h)
	Urunekoak	Lan-bilaketa Interneten (40h)

Bideratuta	Modalitatea	
	Aurrez aurrekoa	Komunikazioa
	Aurrez aurrekoa	WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean (4h)
		Irdia eta bideoa
	Aurrez aurrekoa	Eman lehenengo pausok argazki ukiltuan GIMPekin (16h)
	Aurrez aurrekoa	Sortu bideoak zure gustuoen irudiekin (4h)
	Aurrez aurrekoa	Google Argazkiak. Antolatu lainoan zure argazki guztiak (4h)
	Aurrez aurrekoa	Atera argazkiak une bakoitzerako zure Smartphonearekin (4h)
	Aurrez aurrekoa	Argazkiei ukiltuak eman zure Smartphonearekin (4h)
	Aurrez aurrekoa	Carva. Ikasi diseinatzen (4h)
	Urunekoak	Zure argazkiei etekinik handiena atera GIMPekin (40h)
		Segurtasuna
	Aurrez aurrekoa	Erosketa eta ordainketa seguruak Interneten (4h)
	Aurrez aurrekoa	Zibersegurtasuna eta pribatasuna sarean (4h)
	Urunekoak	Erosketa eta salmenta seguruak Interneten (20h)
	Urunekoak	Zibersegurtasuna. Arriskuak, zurgarritasunak eta mehatxuak (20h)
	Hitzaldia	Heziketa eta segurtasuna Interneten (2h)
	Hitzaldia	Erosi etetik irten gabe (2h)
	Hitzaldia	Zure ordenagailua birus eta bestelako mehatxu etatik babestu (2h)
	Hitzaldia	Zure diru-zorroa Smartphonean (2h)
		Programazioa eta garapena
	Urunekoak	APP Inventor. Sortu zure appak (40h)
	Urunekoak	WordPress. Zure webgunea sortu (20h)
		Produktibitatea
	Aurrez aurrekoa	Google aplikazioak zure Smartphonean (18h)
	Aurrez aurrekoa	Kudeatu zaitze Google aplikazioekin (16h)
	Aurrez aurrekoa	Programa informatiko onenak jaitsi (4h)
	Aurrez aurrekoa	Informatika hodeian. Ezagutu zer den hodeia (4h)
	Aurrez aurrekoa	Gmail. Posta-elektroniko bat baino gehiago (4h)
	Aurrez aurrekoa	Google Drive. Bildu eta partekatu zure artiboak (4h)
	Aurrez aurrekoa	Google Calendar. Zure denboraren kudeaketa hobetu (2h)
	Urunekoak	Erabili profesionalki Google aplikazioak (40h)
	Urunekoak	Google Data Studio. Zure datuak aztertu (20h)
	Urunekoak	Lehenengo pausok marketing digitalen (20h)
	Urunekoak	Sortu zure e-mail marketing kanpainak (20h)
	Urunekoak	Dropbox. Gorde zure artiboak hodeian (4h)
	Hitzaldia	Zure Smartphonean prest izan (2h)

Ibou Ngom

Hainbat herri eta hiri ezagutu ostean, Ibou eta bere senitartekoez Itsasondon bizitzen geratzea erabaki dute. Azaldu digunez, bera Salamancan (Espainia) bizi zen; eta bikote-kidea, berriz, Sevillan (Espainia). Azoka batean ezagutu zuten elkar; eta, denborarekin, elkarrekin bizi proiektu bat egitea erabaki zuten. Horren ostean, Ordizian bizi izan ziren, eta gaur egun, Itsasondoko kaleetan barrena ikus ditzakegu, semearekin batera.



Noiz etorri zinen Itsasondora?

Urtarrilean urtebete egingo dugu etorri ginela.

Non bizi zinen lehen?

Ordizian.

Zergatik erabaki zenuen bizitzera Itsasondora etortzea?

Ordizian bizi ginenean, beste familia batekin partekatzen genuen etxea. Geu bakarrik bizitzeko etxebizitza bat bilatu nahi genuen. Orduan, Itsasondon aurkitu genuen gure nahietara egokitzen zen etxebizitza.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehenengo egunaz?

Gure etxetik mendia zein zuhaitzak ikusten zirela jabetu nintzen, lehen aldia zen halako bistak (paisaia) eskuragarri nituela.

Zein lanbide daukazu?

Ostalaria naiz.

Ordiziako zeren falta sumatzen duzu?

Dendak, adibidez.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen?

Ez zait ezer ere ez gogora etortzen. Guztia ongi dago.

Eta zer duzu gustuko?

Herri lasaia da, eta jende irekia bizi da bertan. Horrez gain, ona etorri ginenean gogoko izan nuen beste alderdi bat administrazio mailan izandako erraztasuna izan zen. Ordizian, eskola zein udal mailan tramite gehiago egin behar ziren, eta korapilatsuagoak ziren.

Zein zaletasun dituzu?

Pelikulak ikustea gogoko dut. Gainera, eguraldi ona egiten duenean, Itsasondotik Ordiziarako noranzkoan ibilaldi txikiak egin eta erreka ikustea gustatzen zait, familiarekin batera.

Janari bat?

Arroza.

Edari bat?

Hibiscus.

Itsasondo edo Goierriko txoko bat?

Oria ibaiaren ondoko ibilbidea.

Amets bat?

Amets ugari ditut, bakarra esatea zaila litzateke.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Emazteak nire urtebetetze egunean oparitu zidan telefono mugikorra.

Zeri diozu beldurra?

Altueren beldur naiz.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Lagun nahiz familia arteko txantxek.

Itsasondon biziko ez bazina?

Donostian, hondartza gustuko dut-eta. ■



Gazteria lantaldea hausnarketa prozesuan murgildurik egon da azken urtean. Prozesu horretan honakoek hartu dute parte: eskolak, guraso elkarteak, gazteek (Gaztelekuko begiraleak izan direnak), ongizateko saileko kideek, gazteria arduradunak eta kultur-gazteria dinamizatzaileak.

Haur eta gazteak herriko etorkizuna

Hausnarketa horrek printzipio batzuk ezarri ditu oinarri modura:

1. Identitatea

Euskaldunak gara, gure hizkuntza euskara da, eta Itsasondon euskaraz bizi gara. Horrez gain, itsasondoar sentitzen gara, eta bere txikitasunean handi den herri honen partaide gara. Amaitzeko, publikotasuna aldarrikatzen dugu, guztion aukerakoa den publikoa defendatzen dugu; eta horren alde mantenduko gara, Urkipe herri eskolatik harago ere.

2. Guztion Herria

Herrian bizi den herritar bakoitzarena eta guztiena da Itsasondo, denak kontuan hartzen gaituena eta denentzat irekia. Adin-kultur-jatorri aniztasunak balioan jarriz, gizarte aldakorrean bizi gara, eta guztiontzat izango den harrera-herri orekatu eta inklusiboa dugu helburu.

3. Herritik eta herriarentzat

Txikitasunean handi da gure herria, eta horri bere garrantzia aitortuz, gure txikitasunetik ditugun baliabideak modu egokian bideratu behar ditugu, herritik sortzen den balioa, berriro herrira itzul dadin. Horregatik, eredugarri izan behar dugu, eta herritarrak umetatik ohitu herriko ekintzetan parte hartzen zein antolakuntzan aritzen. Herria herritarrek egiten dute, eta herritarrak protagonista diren herri aktibo eta parte-hartzailea sustatu nahi dugu.

Aurrerantzean oinarri horren baitan lan egitea da helburua, eta printzipio horiek aingura izanik, hurrengo urterako hainbat adin talderekin 2020ko plangintzak egitea da asmoa.

Horretarako, hainbat bilera eta ekintza egitea aurreikusi da:

1. Gazteria lantaldearen aurkezpena udal agintariei.
2. Gaztelekuko erabiltzaile izan diren pertsona helduegoekin bildu.
3. Gazte guztiarekin bildu.
4. Gurasoekin bildu.
5. Gaztelekuaren irekiera.

Horrez gain, herrian egiten diren ekintza guztien balorazio fitxak osatu ditu gazteria lantaldeak: udalekuak, eskolaz kanpoko ekintzak, erabakiguneak, haur txokoa, eskola kirola... baloratzeko. Aurrerantzean, horien jarraipena egiteko abiapuntu modura osatu dira balorazioak, eta dagoeneko haietatik jaso diren gai batzuei eutsi zaie:

Haur txokoko erabilera eta berrantolaketa

Erabiltzaileen esanetan, maiz ez dira arauak betetzen, eta kontuan izan behar dira horrek elkarbizitzan sor ditzaken trabak. Horrez gain, askok etxetik erretiratutako jostailuak ekartzen dituzte, eta txokoari buelta bat emateko beharra agerian gelditu da.

Horren harira, auzolana deitu zen garbiketa lanak egiteko; ondoren, jostailu batzuk erosi dira, eta espazioa berrantolatzeko lanetan gaude. ■

Etxean nahi ditugu

Abenduak 6an, preso eta gaixo daudenen eguna ospatu zen Itsasondon. Mikel Otegi da gaixo dagoen Goierriko presoetariko bat, eta hari babesa adierazteko Itsasondon hainbat ekintza antolatu ziren. Mikel Otegiaren seme, anai, osaba, lehengusu eta lagunak gogoratu ziren, baita bera bezala gaixo dauden 21 pertsonak ere.


1 1:30ak aldera hasi genuen eguna, anbulantziaren etorrerarekin, eta herriko bi haurrek Mikelen egoera eta gure elkartasuna adierazi zuten plazan, idatzi baten bitartez, familiaren eta lagunaren aurrean.

Ondoren, herriko gazte talde batek altxorraren jolasa antolatu zuen, eta herriko txikiekin batera, hainbat esaldi eta pista aurkitu behar izan zituzten herrian zehar. Honako gaiak landu ziren: torturak, motxiladun haurren kopurura, emakume presoen egoera...

Ordu berean, heldu eta gazteak hizketan aritu ziren udaletxeko kultur aretoan, urteetan jasandako erreprosoaz. Hausnarketa interesgarriak egin ziren horren inguruan. Esaterako, aipatu zen borroka ez dela soilik Euskal Herriaren independentzia lortzeko, baita gaur egun gazteak eta herritar guztiak defenditzen dituzten errealitate askorena ere: feminismoa, sozialismoa, zaborren gaia... eta hori ezin dugula ahaztu, guztiengana iristeko bidea delako.

Hainbat testigantza egon ziren gaiaren inguruan, (mutil laguna kartzelan izan zuen emakume batena, adibidez), eta gure haurrei bizitako hori nola adierazi, aztertu eta hausnartu zen.

Bukaeran, altxorraren jolasa bukatu ondoren, bertan aurkitutako esaldiak irakurri zituzten antolatzaileek, eta emakume presoan, motxiladun haurren eta gaixorik daudenen errealitatearen inguruko datuak entzun ziren.



Horrekin amaitzean, gazteek txikiei hamaiketako eskaini zieten, eta trikitilariekin dantzan aritu ziren, haur, gazte eta heldu. Ondoren, 14:30ak aldera, herriko elkarrean bazkaldtu zuten 80 pertsonak; Ikerrek eta bere "pintxeak" antolatutako janari goxoaz gozatu zuten.

Bazkariak disfrutatu eta gero, ludotekara abiatu ziren, bertan prestatuta zegoen postal tailerra egitera. 30 postal egin zitzaizkion Mikeli, eta egun horretan bertan bidali ziren.

Ondoren, Giza-katea egin zen, eta bertan Goierriko pertsona asko elkartu ziren. Giza katean, Mikelen lagun batek idatzitako mezua pasatu zen eskuz esku. Bukaeran, plazan irakurri zen. Bertan azaldu zen Mikelek bi kondena sufrizten dituela, gaixotasuna eta kartzela. Egoerak dakarren gogortasuna eta bortizkeria ere jaso zuen idatziak. Horrekin batera, denak itsaso bihurtzeko nahiaz jardun zuten, Euskal presoak atera daitezzen eta sufrimendua amai dadin.

Irakurketa amaitzean, 21 itsasargi bidali ziren zerura, preso gaixoen askatasuna aldarrikatuz. Horrela bukatuz zen emozioz betetako eguna. ■



Gau beltza

Arimen gaua edo gau beltza bezala ere ezaguna. Gurean ohiturari eutsiz arimak kalera aterata eta beldurra emateko lanetan ibili dira. Beldurra eman eta jasoz. Aurpegi margoketa, eskulanak eta ipuin kontalaria izan ziren, eta afari merienda batekin amaitu zuten egun beldurgarria. ■



Talo ikastaroa

Talo festa egin ohi da herrian urtero. Taloak egiteko lanak mantentzeko aukera ona dela pentsatuta, talo ikastaroa antolatu da aurtengoan. 6-8 lagun ibili dira antolatu ziren bi saioetan jo ta su taloak egiten. Giro ona, irakasle apartak eta ikasteko gogoia izan dira nagusi bi saioetan. Baditugu etorkizuneko talogileak! ■



Perretxiko argazki lehiaketa

Perretxikoen urte sasoia aprobetxatuz, Itsasondoko I. perretxiko argazki lehiaketa antolatu da. 20 argazki aurkeztu ziren. 1. saria Aitzol Berasategik eraman zuen "Kolorebizi" argazkiarekin, eta Xabier Iturriozek 2. saria jaso zuen "Xabi 1" argazkiarekin. Biek egurrezko argazki panel handitua jaso dute sarritzat. Argazki horiek Itsasondoko urteko egutegian ikusgai dituzue. Zorionak parte-hartzaileei! ■



Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

Urtero legez aurtengoan ere emakumeen indarkeria salatu nahi izan dugu herritarrok. Horretarako, plazan elkarretaratzea burutu dugu. Emakumeen aurkako indarkeria behingoz amaitu eta benetako berdintasunean oinarritutako gizarte baten aldeko ekimena burutuz. ■



Kantu afaria

Ohiko giroa jarri zuten Kuxkuxtu taldekoek. Musika eta jana uztartuz, giro apartean egon ziren kantu afarian bildu ziren 25 lagun inguru. Tripotxak, patatak errioxar erara, txerri sekretua eta postre goxoaz gozatu eta kantu ugari abestu zituzten. ■



Asteburu mikologikoa

Azaroaren 15 eta 16an, mikologia gai hartura, hainbat ekintza egin ziren herrian. Perretxiko lehiaketako sari banaketa eta hitzaldi pare bat. Itsa-sondoko perretxiko jangarrien inguruan eta basoetan onddoak egotearen garrantziaz aritu ziren Javier Gomez eta Joxepo Terees, Aranzadi elkartekoa.

Elkartean dastaketa egin zen; eta, larunbatean, irteera egin zen. Eguraldia lagun ez bazen ere, bira egin zuten 4 lagunek. ■



Euskararen eguna

Talo festaren egunean, euskararen eguna ospatu zen. Euskal tribiala egin zen. Partaide ugari elkartu ziren hainbat froga egiteko. Egun hori aprobetxatu nahi izan zen, jendea bilduko zela aurreikusita, euskararen eguna ospatzeko. ■



Talo festa

Aurtengoan ere talo festa arrakastatsua izan da herrian. Azaroaren 30ean. Dena prest zegoen, ondoren jango ziren 300 talotik gora zerbitzatzeko. Lan asko den arren, antolatuz gero, denon gusturako izaten da, eta herri giroa indartzeko ekintza aparta dugu. Zenbait jaki azkar amaitu baziren ere, denek dastatu zuten taloa. Hurrengo urtean gehiago! ■



Olentzero eta Mari Domingi

Eskola apaindu zen, txikien geletan sartuta, gelak girotzen aritu ziren zaharrenak, sormen handiz. Olentzero eta Mari Domingi bertan izan ziren, aterpean. Eskutzak idazten aritu ziren, eta ume batzuk zuhaitzean edota opari modura eskaini zizkieten 24an. Lehen orduan, Eguberri kantak abestu ziren, eta frontoira jaitsi ziren euskal kirolak egitera. Bitartean, hirugarren zikloko haurrak, txistor pintxoak prestatu zuten, jubilatuen elkartean. Bukatzeko, udaltxera joan ziren Olentzeroren azken filma ikustera. Giro polita izan zen herrian, eta bai haur, bai helduek, ederki pasatu zuten. ■



Itsasondoko II. San Silbestrea

Ekintza osasungarriak ohitura bilakatzeko helburuarekin, aurten ere abenduaren 31ean San Silbestre lasterketa ospatzeko elkartu ginen itsasondoar guztiok. Haur, gazte zein helduk 2019ko azken eguna energia onez amaitu nahian, kiroltako oinetakoak jantzi eta pauso irmoz herriko kaleak aniztasunez alaitu zituzten.

Lasterketak bi ibilbide zituen, luzea eta motza. Batak, kale nagusia zeharkatzen zuen; eta bestean, berriz, goiko kalea zein behekoa igarotzen ziren, hurrenez hurren. Amaieran, indarrak berreskuratzeko, mokadutxo bat egiteko aukera izan zuten, Itsasondoko Gazte Asanbladako kideek prestatutako pintxoak. Horrela, musika eta eguzki izpi beroz agurtu genuen beste behin hamarkada.

Amaierak gazi-goza, baina alai bilakatuz! ■



Ipuin kontalaria

Kontu kantoiko lagunak izan ziren abenduaren 23an, ipuin kontaketa saioa eskaintzen. Ipuina kontatu eta marraztu egin zuten, kontatzen zutena. Giro ederrean egon ginen, gerturatu ginen 20 bat haur eta gurasok. Adin tarte ezberdinetako haurrak izan ziren ekintzaz gozaten. ■





(errezeta)

Albondigak txipiroiak bere tintarekin

4 pertsonarentzako osagaiak:

Albondigak: haragi txikitua 400 g, moldeko ogia bi xerra, esnea 50 ml, arrautza bat, baratxuri ale bat, perrexila, gatza eta piperbeltza.

Anoako 8 txipiroi fresko.

Saltsarako: Tipula bat, piper berde bat, tomate bat, ardo zuri baso erdia, L. bat salda, baratxuri ale bat, perrexila, estaldura txokolateko ontza bat (%70 kakaokoa), bi ogi xerra, baso erdi tomate frijitua, gatza eta piperbeltza. Oliba-olioa.

Txipiroiak garbitu eta eltze batean egiten ditugu, oliba olioarekin.

Olio horretan, tipula, piper berdea eta tomate laukitxoak frijitzen ditugu. Barazkiak ondo sueztituta daude, ardo zuria gehitu eta egosi bi minutuz. Tomate frijitua gehitu, eta minutu pare batean egosi, bueltak emanez. Salda gehitu, eta utzi egosten orduerdiz, su baxuan.

Denbora horretan, albondigak ekilore oliotan prestatu eta frijitzen ditugu.

Orduerdian egosi ondoren, eta murriztutako saltsa daukagunean, turmix-a duen txinatar iragazki batetik pasatzen dugu.

Salda hau sutan jartzen dugu albondigekin, txipiroiekin, baratxuri eta perrexilarekin, txokolatearekin eta bi ogi xerra frijituekin. Su oso baxuan egiten utziko diogu, ordubetez, eta ondoren ordu batzuk egonean utzi.

On egin! ■



Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka-sartzeen zenbait adibide. Saia gaitetzen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Langileak adostasunera iritsi ziren.	Langileak ados jarri ziren.
Antitabako kanpaina indartu dute bulegoan.	Tabakoaren aurkako kanpaina indartu dute bulegoan.
Siesta ederra bota dugu.	Siesta ederra egin dugu.

Euskararen aurkako erasoak

Euskarak historian zehar jasandako erasoak ugariak izan dira. Hurrengo lerroetan zenbait adibide.

"El euskera no es ya valido, su completa desaparición permitirá una mayor comprensión entre los hombres. El vascuence es un enfermo tuberculoso en su último grado que irremisiblemente perece."

"La lucha de clases" aldizkari sozialista, Bilbo, 1901

"A Guillermo Garmendia Ayestaran, 100 ptas por hablar el vasco en un tranvía, ocasionando con ello alteración de Orden Público."

"Unidad", 1938-ko Urtarrilaren 28-a

Euskararen telefonoa

CodeSyntax enpresak galdera-erantzunen joko berri bat garatu du, euskaraz. Lehiaketa zaleei zuzendutako aplikazioa da, hain zuzen, aipatutakoa. Egunean Behin izena hartu duen app-a Android eta iOS sistema-eragileetan dago erabilgarri.

Jokatzeko modua oso erraza da. Izenak dioen bezala, egunean partida bakarria jokatzeko aukera ematen du. Horretarako, erabiltzaileak 10 galdera erantzun beharko ditu, ahal den azkarren. Zenbat eta galdera zuzen gehiago erantzun eta zenbat eta arinago egin, orduan eta emaitza hobea lortuko du.

Jokoak sailkapen orokor bat izango du, eta jokalaria bakoitzak puntu kopuru jakin bat lortuko du, partidaren erantzundako galdera zuzenen araberak. Sailkapena astero berrituko dute, hau da, jokalariek astelehenetik igandera egindako puntuak hartuko ditu kontuan. Gainera, partida bakoitza lagunekin partekatzeak aukera izango du erabiltzaileak.

Mundu mailako galderak ere egon arren, jokuaeren xedea euskara sustatzea eta euskal kultura ezagutaraztea da.



Liburutegiko berrantolaketa

Liburutegi dotorea dugu Itsason-don, baita kalitatezko liburuak ere. Dena den, txukunketa lan batzuk egin behar zaizkio, bereziki, liburu-entolaketan.

Beraz, liburuak alfabetikoki txukuntzeko, **liburutegia itxi egingo da otsailaren 3tik 7ra**. Horrela erraztuko da egunerokoan liburuak aurkitzea zein, bueltatzean, txukun jartzea bere lekuan.

Liburutegia itxita dagoen bitartean, kulturgunea erabilgarri izango da ikasgela modura. Halere, kontuan izan behar da musika eskolak ere badaudela; hori dela-eta, elkarbizitzan moldatuko gara espazioa partekatzeko egun horietan.

Behin liburutegia txukunduta, liburuak hartzeko garaian, irakurlearen izena eta bi abizenak apuntatu beharko dira, sarean erregistratu ahal izateko. Itzulketa epeak ere kontuan izan beharko dira, eta liburu guztiak datarako itzuli. Izan ere, LAM sistema ezarriko da berriro, eta beharrezkoa izango dugu erabilgarri zein liburu ditugun jakitea. Ohar hauek guztiak zehaztuko ditugu, berrantolaketa lanak amaitzean.



Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170
• Gizarte Langilea
• Udal Arkitektoa
• Epaitegia

Haurreskola 943 164831
Herri Eskola 943 887704
Arbel-Aitz Elkarte 943 881339
Lurdes Janari Denda 943 885236
Arrastoa Botika 943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 007635
Kaxintane Taberna 606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012
Izaskun Ilepaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555
Traste Zaharrak 943 161590
Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((((44. zk.))) Urria 2020

Ale honetan parte hartu dutenak:

Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Guraso elkarte
Eneritz Albizu
Eskolako irakasleak
Haur eskolako hezitzaileak
Inaki Aizpuru
Nerea Manzisidor
Jone Etxeberria
Emma Martinez
Maider Saenz de Navarrete
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
APIRILEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

Kultur Agenda

OTSAILA

- 3-7 Liburutegia itxita
- 4, 11, 18 eta 25 Soinketa (16:00) eta tipi-tapa (17:00)
- 5 Memoria tailerra jubilatuetan (18:00)
- 8 Euskal Herriko mus txapelketa
- 10 Lurralde batzordea
- 12 Herri bizitza batzordea
- 13 Ongizate batzordea
- 27 Bingoa (17:00) jubilatuetan
- 28 Sukaldaritza tailerra familian
- 29 Ziklo krosa.

MARTXOA

- 2-8 Emakumeen eskubideen astea
- 4 Memoria tailerra jubilatuetan (18:00)
- 5 Berdintasuna hitzaldia
- 8 Emakumeen nazioarteko eguna, bazkaria
- 3, 10, 17, 24 eta 31 Soinketa (16:00) eta Tipi-tapa (17:00)
- 9 Lurralde batzordea
- 11 Herri bizitza batzordea
- 12 Ongizate batzordea
- 26 Bingoa (17:00) jubilatuetan

APIRILA

- 1 Memoria tailerra jubilatuetan (18:00)
- 6 Lurralde batzordea
- 7 Ongizate batzordea
- 8 Herri bizitza batzordea
- 7, 14, 21 eta 28 Tipi-tapa
- 27 Memori tailerra 18:00etan jubilatuetan.
- 30 Bingoa (17:00) jubilatuetan
- 20-26 Mendi astea
- 24-25 Urkiko gau magikoa